



...Irabazi arte
Iheskide
Mauka, 2012.

Topikoa da benetan errebeldea

KANPAZAR mendatearen bi aldeetan, Leintz bailaran eta Durangaldean, gazteriak aspaldidanik izan du punk-Oi! musikarako zaletasun berezia. Testuinguru honetan ezagutu eta kokatu nuen nik Elorrioko talde hau, artean Iheskide izena zuenean. Hastapenetan eten handiko ibilbidea izan zuen beste hainbat taldetan aritutako lagunaren proiektu honek, eta sendotasuna hartzen hasi zenean taldeko baxu jotzailea espetxeratu egin zuten. Eraso horren aurrean baxuaren lekukoa eta mikrofonoa beste lagun askorekin altxatuz, Iheskide izena hartu eta diskoa grabatu zuten. Izugarritzko harrera izan zuen.

Ordurako argi geratu zen punk-rock errebeldea egiteko sortutako taldeak aipatutako etiketaren estalpetik askatu, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga psikologikoa erraztasunez gainditu eta gogor ekingo ziola etorriko zen guztiari, etsaiari gogor egiteko asmoz. Hala, Tronpi askatu eta ...*Irabazi arte* diskoa prestatzeari ekin zioten.

Iheskideri izena eman zion lanari jarraipena –jarreraz eta estiloz– emanez, oraingoan ere erakutsi dute taldeak aukeratutako punk-rock errebelde deitura estilistikoki oso irekia dela eta Oi! musikaren lagun arteko taberna-koroetatik harago doala: kantuetako asko oso gitarrero eta rock-and-rolleroak dira, Eskandinabiako taldeak ekartzen dituzte gogora; Ingalaterrako 77ko punkaren irmotasun

eta berezko *letxe-txarra* ere barneratzen jakin dute, NCC donostiar talde beteranoak egin ohi duen bezala; eta urrunago ausartuz, hard-rocka eta Alemaniako punkaren berezko melodia malenkonikoa uztartzen ere jakin dute. Ez da makala!

Gainera, Euskal Herriko punk-rock eta rock-and-roll eszenan mugitzen diren talde gutxi bezala, ez dute inoiz pentsatzen dutena azaleratzeko bidezidorrik hartu eta mezu zuzenenak ematea aukeratu dute amildegian behera balazta gabe jaurtita aurrean jartzen zaienena kontra. Topikoen benetako garrantzia –orain ez bada, noiz?– errebindikatzeke idatzitako hitz gezidunek iraultza, espetxea, lobby jeltzalea, gose greba, sakabanaketa eta maitasuna dituzte gai nagusi, barru-barrukoari jarraituta.

Aipatutako mugak apurtu izanaz gain –eta aurrerago etorriko direnak– taldeak lortu du gazte –eta ez hain gazte– ugari jarraitzaile izatea; eta horrekin batera, taldearen mezua zabalduaz bat, datozen belaunaldiari ondo jorratutako musika estilo gogor baina esanguratsuak hurbiltzea. Talde kontsekuentea da –batzuek panfletario deituko dute–, diskoak zuzenekoetan saltzen dituzte eta uko egiten diote beraien lana dendetan zabaltzeari.

Iker Barandiaran



GORROTXATEGI



Egile Turroiak

Gorrotxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrotxategi

www.gorrotxategi.com